

Martin Ugalde Orradre

[Egile ezezaguna]

Euskararen Berripapera, 64. zk., 1997-09: 2.

Martin Ugalde idazle, kazetari eta euskaltzalea Andoainen jaio zen 1921ean. Gerra Zibila zela eta, aita Caracasera joan zen eta berak ere hainbat urte egin zituen Venezuelen. Han hainbat euskal aldizkaritako kolaboratzaile, zuzendari eta erredakzioburu izan zen. EAJko atzerriko batzordeko lehendakari eta Caracasko Euzko Gazteriko sortzaile ere izan zen. EEBBetan ingelesa ikasi eta kazetaritza-ikasketak egin zituen. Urte batzuetan EEBBetan bizi ondoren, 1954an berriro Caracasera itzuli zen. Venezuelen zela hasi zen literaturarekin zaletzen eta ipuinak idazti zituen. 1969an Euskal Herrira itzuli zen; EAJren *Alderdi* aldizkariko zuzendari, *Zeruko Argiako* kolaboratzaile eta erbesteko Eusko Jaurlaritzako kontseilari izan zen. 1973-76 bitartean Donibane-Lohizunen bizi behar izan zuen erbestean. *Deia* egunkariko euskarazko taldearen erredaktoreburu (1978), Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Euskararen Sustapenerako zuzendari (1982-85) eta *Euskaldunon Egunkaria*-ko sortzaileetakoa izan zen. 1990az geroztik *Egunkariako* Administrazio Kontseiluko lehendakaria da eta 1993an, berriz, Euskaltzaindiko ohorezko kie izendatu zuten. Kazetari-lanaz gain, hainbat liburu idatzi du gazteleraz eta euskaraz: ipuinak, nobelak, antzerkiak, biografiak, historia-lanak, etab. Kazetaritza-alorrean, eta bereziki euskal kazetaritzan eginiko lanagatik ohorezko aipamena jaso zuen ekainaren 28an Andoaingo Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren eskutik.